



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAI A

PRENTSA OHARRA

## **Ekonomia eta Ogasuneko batzordeak Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zerga aldatzeko eta lehentasunezko partaidetzen eta mendeko finantza-ekarpenen titularrei jagokenean PFEZ-n aldaketak sartzeko errespenak onetsi ditu**

Bilbon, 2015eko martiaren 13an.

Ekonomia eta Ogasuneko batzordeak Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zerga arautzen dauen Foru Arauaren proiektuari buruzko errespena onartu dau gaur. Horren helburua “zerga horren araudi erregulatuazilea modernizatea da, koherentzia bermatuz eta sistematikea hobetuz”, esan dau Jose Maria Iruarizaga Ogasun eta Finantzetako diputatuak, proiektua batzarretako taldeen aurrean aurkeztean. Testua zuzenketa-eske barik heldu da batzordera, eta aldeko 8 botogaz (EAJ-PNV eta PSE-EE) eta 4 abstentzinogaz (EH Bildu eta PP) onartu da.

Diputatuaren berbetan, proiektuaren helburuak honeek dira: “zerga horren araudiaren koherentzia bermatzea, apurka-apurka sartuz joan diran aldaketetara egokituz; araudi erregulatuazilea interpretetako administrazinoko jardunbidearen bitartez finkatuta dagozan erespideak jasotzea; eta aitorpena baliabide telematikoak erabilita aurkezteko aukerea sartzea”.

Gaurko saioan bertan argi berdea emon jako, baita be, PFEZ-n aldaketak sartzan dituan Foru Arau Proiektuaren errespenari, errenta negatiboak lortzeak, mendeko finantza-ekarpenen eta lehentasunezko partaidetzen titularrei eragiten deusiezan “salbuespenezko eta proportzinoz kanpoko ondorioak mugatu ahal izateko”, esan dau Iruarizagak. Azkeneko testua aho batez onartu da.

Proiektuak EAJ-PNV taldearen zuzenketa-eske bat jasoten dau, oraindino behin betiko onartu aurretik Osoko Batzarrak berretsi behar dauen dokumentu horretan mendeko zorren kasua jasotzeko daiten, ez daitezkan mendeko finantza-ekarpenen eta lehentasunezko partaidetzen titularren modu desbardinean tratau, jeltzaleek azaldu dabenez.

Ogasuneko diputatuak azaldu dauenez, Foru Arau proiektu horregaz, PFEZ-aren ondoretarako, orokorrean, mendeko finantza-ekarpenen eta lehentasunezko partaidetzen titularrek jasotako errentak, norberaren kapitalak beste batzuei lagatzearen ondorioz lortutako etekin moduan ulertuko dirala ezarriko da, eta errenta horreen integrazino eta konpentsazino araubidea malgutu egingo da.

2010EKO ETA 2011KO BIZKAIKO KONTU OROKORRAK ONARTU DIRA

Batzordeak onartu egin ditu, Euzko Abertzaleak (EAJ-PNV) taldearen aldeko botoagaz bakarrik, 2010eko eta 2011ko ekitaldietako Bizkaiko Lurralde Historikoko Kontu Orokorrak. Erabagi hori, joan dan zezeilaren 23an Ekonomia eta Ogasuneko Batzorde honetan Kontu Publikoen Euskal Epaitegiak emondako txostenak aurkeztu ostean etorri da. Txostenak Jose Ignacio Martínez Churiaque Kontu Publikoen Euskal Epaitegiko presidenteak azaldu ebazan.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

Ogasun eta Finantzetako diputatuak gogoratu dau Epaitegi horrek kontu bien “aldeko” txostena emon ebala, Foru Aldundiaren eta bere sektore publikoaren kontabilidade eta finantza egoeraren “benetako” irudia zala azpimarratuz, eta indarrean egoan araudia bete zala esan dau, berak “erespide desbardintasun” gisa definitu dituan ez-betete batzuk izan ezik.

Bozketan abstenidu egin dan PP taldea “pozik” agertu da “ez-beteteak” gitxitu egin diralako, “8tik 4ra pasau diralako” eta epaitegi fiskalizatzaileak erespideak “errazoizko moduan” bete dirala esan dauelako, baina aldaketak jaso dituen aurrekontuetako partida “larregi” dagozala kritikau dau.

Erespen bien bozketan abstenidu egin dan PSE-EE taldea kontratazino akatsetan zentrau da. Alexia Castelo sozialistaren berbetan, urte horreetan kontratu txiki eta kontratuen zatiketa “larregi” egon ziran, kontratuak jende aurreko deialdi bidez egin behar ez izateko. Nekazaritzako sailak basoen arloan egindako kontratuak jarri ditu adibide moduan. “Errepikau egiten diran lanak dagoz”, adierazo dau.

EH Bildu taldeak, bere aldetik, “erabateko ezetza” agertu dau erespen biak onartzeko aukeraren aurrean, ez-betete “argiak eta garbiak” dagozalako. Horreen artean diru-sarrera fiskalen murrizketea, tributuen zorrak kobretako orduan zergadun batzuei emondako tratamendu “desbardina” edo zor biziaren hazkundera aitatu ditu. Zor hori “1.573 milioi eurokoa” zan 2009an, eta 2010ean “2.067koa”. Hau da, urtebetean “%30,7ko” hazkundera izan eban.

EAJ-PNV-ko batzordeko taldeak defendidu egin dau Aldundiak aurrekontuen aldaketei eta desbideraketei eta kontratuen zatiketei jagokenez egin dauen beharra. Lehenengoei jagokenez, Josu Arteta batzordekide jeltzaleak “ohiko gauzea” dirala esan dau. Ez dira Bizkaiko Foru Aldundian aurreko urteetan gertatutakoen edo beste erakunde batzuetan gertatzen diranen “ez gehiago ezta gitxiago”. Bigarren gaiari jagokenez, Aldundiko arduradunek Batzar Nagusien aurrean behar bezala azaldutako puntuak dirala esan dau.

Iruarizagak, bere aldetik, aurrekontuak “zeozer bizia” dirala esan dau, eta aldatu egiten dirala, Gobernuaren helburuak bete ahal izateko. KPEE-TVCP-agaz dagozan desadostasunei jagokenez, “erespide desbardintasunak” dirala esan dau, eta azpimarratu dau erakunde horregaz dagoan harremana etenbako dala. Horri esker, egunero gauzak hobatzen doaz.

Diputatuak esan dauenez, 2011n Foru Aldundian 1.161 milioi eurokoa izan zan eta Aldundiko sektore publikoan 1.029 milioira heldu zan zorra, aurrekontuen mugen barruan egon zan. Bere berbetan, datu horreen gauzarik garrantzitsuena, “inbertsinoa zorpetze garbia baino altuagoa izatea da”, horrek erakusten dauelako zor hori ez dala ohiko gastuetara bideratzen. Zorrak urte bi horreetan izan eban handitzea justifiketako orduan esan dau ekarpen ekonomikoak egin zirala Hegoaldeko Saihesbide Metropolitarraren eraikuntza lanak ordaintzeko eta ondoren, azken hiru ekitaldietan zorpetzeak “zero” hazkundera izan dauela, eta “1.200 milioi euroen inguruan” jarraitu dauela azpimarratu dau.

Tributu zorren atzerapen “bereziei” jagokenez, Iruarizagak guzurtau egin dau atzeratutako kopuruek ezelango ondare galerarik eragiten dabenik, Joseba Gezuraga EH Bilduko ordezkoi bozeroaleak salatu dauen moduan. Urte bi hareetan, atzerapen horreek atzerapen guztien %1,2tik behera geratu ziran. 2010ean “9.214” atzerapen gertatu ziran. Horreetatik “118 bereziak, salbuespenekoak” izan ziran, eta 53,7 milioi euro kobretara atzeratu egin zan. 2011n,



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAI A**

atzerapenak “4.464raino” gitxitu ziran. Horreetako 52tan 9,5 milioi euroko zorra atzeratu zan. Diputatuaren berbetan, “horrek ez dau ezelango diru-sarrera galerarik eragiten”.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

## **La comisión de Economía y Hacienda aprueba los dictámenes para modificar el Impuesto sobre Sucesiones y Donaciones, y añadir cambios en el IRPF en relación a la tributación de titulares de subordinadas y preferentes**

Bilbao, a 13 de marzo de 2014.

La comisión de Economía y Hacienda ha aprobado hoy el dictamen sobre el Proyecto de Norma Foral que regula el Impuesto sobre Sucesiones y Donaciones. Su objetivo es “modernizar la normativa reguladora de este impuesto, garantizando su coherencia y mejorando su sistemática”, ha señalado el diputado de Hacienda Finanzas, José María Iruarrizaga, en la presentación del proyecto ante los grupos junteros. El texto, que llegaba a la comisión sin enmiendas, ha sido aprobado por 8 votos a favor (PNV y PSE-EE) y 4 abstenciones (EH Bildu y PP).

En palabras del diputado, el proyecto tiene como objetivos “garantizar la coherencia de la normativa de este impuesto adaptándose a la modificaciones que se han ido incorporando de forma progresiva, recoger criterios interpretativos de la normativa reguladora que se encuentran sólidamente acuñados por la práctica administrativa, e introducir la posibilidad de presentar la declaración mediante medios telemáticos”.

En la misma sesión, se ha dado también luz verde al dictamen del Proyecto de Norma Foral que introduce cambios en el IRPF “a fin de mitigar las excepcionales y desproporcionadas consecuencias” que la obtención de rentas negativas les están produciendo a los titulares de aportaciones financieras subordinadas y a los titulares de participaciones preferentes, ha señalado Iruarrizaga. El texto final ha sido aprobado por unanimidad.

El proyecto incorpora una enmienda del PNV para que en el documento, que aún tiene que ser ratificado por el pleno para su aprobación definitiva, se recoja el caso de las deudas subordinadas, para que no se trate de forma diferente a los titulares de participaciones preferentes y de deuda subordinada, han explicado desde las filas jeltzales.

Según ha explicado el diputado de Hacienda, con este proyecto de Norma Foral se establece que, a efectos del IRPF, con carácter general, las rentas que obtengan los titulares de aportaciones subordinadas y participaciones preferentes se calificarán como rendimientos obtenidos por la cesión a terceros de capitales propios, y se flexibiliza el régimen de integración y compensación de estas rentas.

### **APROBADAS LAS CUENTAS GENERALES DE BIZKAIA DE 2010 Y 2011**

La comisión ha aprobado con el único voto a favor del grupo juntero Nacionalistas Vascos (PNV) las Cuentas Generales del Territorio Histórico de Bizkaia de los ejercicios de 2010 y 2011. Este pronunciamiento llega tras presentarse en esta comisión de Economía y Hacienda, el



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAI A**

pasado 23 de febrero, los informes emitidos por el Tribunal Vasco de Cuentas Públicas, que fueron diseccionados por su presidente, José Ignacio Martínez Churiaque.

El diputado foral de Hacienda y Finanzas ha recordado que este Tribunal emitió informe “favorable” de ambas cuentas, destacando que eran reflejo “fiel” de la situación contable y financiera de la Diputación y de su sector público, y que se cumplió la normativa vigente, salvo algunos incumplimientos que ha definido de “diferencias de criterio”.

El PP, que se ha abstenido en la votación, se ha “alegrado” de que los “incumplimientos” hayan bajado “al pasar de 8 a 4” y el hecho de que el tribunal fiscalizador haya manifestado que se ha cumplido “razonablemente” los criterios, si bien ha criticado que existan “demasiadas” partidas presupuestarias modificadas.

El PSE-EE, que también se ha abstenido en la votación de los dos dictámenes, ha puesto el acento en los defectos de contratación. A juicio de la socialista Alexia Castelo hubo durante esos años un “abuso” del contrato menor y del fraccionamiento de los contratos para evitar la concurrencia pública. Ha puesto como ejemplo los contratos del departamento de Agricultura en materia forestal. “Existen trabajos que se repiten”, ha dicho.

Por su parte, EH Bildu ha expresado su “no rotundo” a la aprobación de los dos dictámenes por incumplimientos “evidentes”, entre los que ha citado la merma de los ingresos fiscales, el trato “diferente” a algunos contribuyentes para cobrar deudas tributarias o el incremento de la deuda viva, pasando de "1.573 millones de euros" en 2009, a "2.057 millones" en 2010, lo que supone un incremento del “30,7%”.

El grupo juntero del PNV ha defendido la labor de la Diputación en lo que se refiere a las modificaciones presupuestarias, y en relación a las desviaciones y fraccionamientos de contratos. Respecto a las primeras, el apoderado jeltzale Josu Arteta ha dicho que son “algo habitual”. “No son ni mayores ni menores” de los que se producen en la Diputación vizcaína años atrás o en otros estamentos. En cuanto a la segunda cuestión, ha señalado que han sido debidamente explicadas por los responsables forales en las Juntas Generales.

Por su parte, Iruarrizaga se ha referido a que los presupuestos son “algo vivo” que son modificados para cumplir los objetivos de Gobierno. En cuanto a las desavenencias con el TVCP, las ha contextualizado en “diferencias de criterio”, destacando que la relación con este órgano es fluida y constante, lo que está permitiendo una mejora continua.

En relación a la deuda, que según él alcanzó en 2011 los 1.161 millones de euros en la Diputación, y los 1.029 millones en el sector público foral, se situó por debajo de los límites presupuestarios. A su juicio, lo significativo de estos datos es que “la inversión neta sea superior al endeudamiento neto”, reflejo de que no se dedica deuda a gasto corriente. Ha justificado el incremento de la deuda durante esos dos años por las aportaciones económicas para pagar la construcción de la Variante Sur Metropolitana, destacando, después, que en los últimos tres ejercicios el endeudamiento ha crecido “cero”, situándose “en torno a los 1.200 millones de euros”.

En cuanto a los aplazamientos “singulares” por deudas tributarias, Iruarrizaga ha rechazado que las cantidades aplazadas supongan pérdida patrimonial alguna, como denunciaba el portavoz suplente de EH Bildu, Joseba Gezuraga. En los dos años, estos aplazamientos se situaron por



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAI A**

debajo del 1,2% del total de aplazamientos. En 2010, se produjeron “9.214” aplazamientos. De estos, “118” fueron “excepcionales”, llegándose a retrasar el cobro de 53,7 millones de euros. En 2011, los aplazamientos descendieron hasta los “4.464”. En 52 de ellos se llegó a aplazar deuda por valor de 9,5 millones, lo que “no supone ninguna pérdida de ingresos”, ha insistido.